

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **Behin betiko onarpena ematea 1 poligonoko 1299 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari**

Udalbatzak, 2016ko uztailaren 28ko bilkuran, behin betiko onartu zuen AL-17 sektoreko 1. poligonoko 1299 lurzatiari eragiten dion xehetasunezko azterlana. Horiek horrela, argitara ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Gobernu batzarrak, 2016ko ekainaren 9an hartutako erabaki bidez, hasierako onarpena eman zion AL-17 sektoreko 1. poligonoko 1299 lurzatiari eragiten dion xehetasunezko azterlanari; izan ere, egokitu egiten baitu udal planeamenduko arau subsidiarioetan finkatutakoa.

Jendaurrean egon da hogeit egunez, iragarkia jarri baita ALHAOn 2016ko ekainaren 20an (70. zk.) eta DEIA egunkarian 2016ko ekainaren 20an, eta jakinarazi egin zaie xehetasunezko azterlanaren lurralde eremu barruko jabeei eta zuzenean eragindako interesdunei.

Jendaurrean egon den epearen barruan ez da alegaziorik aurkeztu.

Legez finkatutako izapidetzea eginda eta aztertuta idazkaritzaren 2016ko uztailaren 15eko txostena, bertaratuek, gehiengoz, EH Bilduko zinegotzien abstentzioarekin, hau erabakitzen dute:

1. Behin betiko onartzea AL-17 sektoreko 1. poligonoko 1299 lurzatiari eragiten dion xehetasunezko azterlana; izan ere, egokitu egiten baitu udal planeamenduko arau subsidiarioetan finkatutakoa, eta bere xedea baita gehieneko altuera arautzea.

2. Behin betiko onarpenaren erabakia ALHAOn argitaratzea.

3. Erabaki hau jakinaraztea jabeei eta xehetasunezko azterlanak zuzenean eragiten dituen gainerako interesdunei. Halaber, hirigintza arloan eskumena duen foru organoari jakinaraziko zaio.

4. Erabaki hau lortze aldera, alkateari beharrezkoak diren agiriak izenpetzeko ahalmena ematea.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta berorren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean udalbatzan, iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik hasita, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango zaio bi hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (Bilboko egoitzan), iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira. Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo errekurtso hori isilbidez ezetsi arte. Nolanahi ere, bidezko jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Dulantzi, 2016ko abuztuaren 1a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*